

## **KONTROL MOZIOA**

### **Haurguneen eredia zabaltzearen inguruan**

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urriaren 14ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

0-5 urte bitarteko hurrei aisialdirako espazioa eskaintzeko proiektua da haurguneena, Donostian bi auzotan martxan dena; lehena Intxaurren, 2012az geroztik abian dena, eta bigarrena Egian, 2014an sortua. Bata zein bestea gurasoek haurren heziketarako sumatzen zuten hutsunetik abiatu ziren, haurren aisialdirako eskaintzatik kanpo gelditzen baitira haur txikienak. Horrexegatik, Gazteria Plan Estrategikoan helburu gisa ezartzen den *haurren garapenaren eta ongizatearen sustapena* jorratzeko modua dira haurguneak.

Intxhaurgunean eta Egihaurgunean, gurasoek diseinatutako eta sostengatutako proiektuek dute habia, materiala, aisialdi eskaintza, espazioaren kudeaketa eta beste, haien gaitasun eta nahien arabera antolatuz. Horrela, gurasoen antolakuntza eta autogestioa dute oinarri haurguneek. Horixe da, besteak beste, proiektuaren parte diren eta izan diren hainbat gurasok balioan jartzen duten aspektua: aisialdirako eta heziketarako espazio fisikoa izateaz gain, auzoan erroto eta ekarpena egiteko aukera baitira haurguneak. Zentzu horretan, haurrengan ere auzoarekiko lotura sortu eta harreman sareak eraikitzeke hazia ernatzen dute haurguneek. Azkenik, haien bizi-fase parekoan dauden gurasoekin kezka eta iritziak partekatzeko tartea irekitzen da espazio hauen bidez, guraso eta haurren beharren neurriko eskaintza sortuz.

Hori esanda, egia da Udalari esfortzu handiegirik suposatzen ez dioten proiektuak direla honakoak (ez baita langilerik, Haurtxokoetan bezala, esaterako). Espazioa atontzeko laguntza eta urteroko dirulaguntzez harago, gurasoek hartzen dute espaziook kudeatu eta dinamizatzeke ardura eta lan-karga. Hori kontuan hartuta, eta martxan diren bi haurguneek hamarkada arrakastaz igaro dutela jakinik, interesgarria

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

da esperientzia hau beste auzoetara zabaltzeko modua bilatzea. Izan ere, haurguneez bide eman dezakete, txikienen aisialdiaren bidez, auzoan erroturiko komunitatea saretzeko, eta hori Udalarentzat izugarrizko abantaila dela uste dugu. Beraz, ezin dugu saiatu gabe gelditu.

Egia da Intxhaurgunearen eta Egihaurgunearen esperientziak behetik gorakoak izan direla, auzoetako guraso taldeek proposamenarekin jo baitzuten Udalarengana. Behetik gorako logikaren potentzialitatea argi izanik ere, uste dugu Udalak ezin duela itxaron herritarrek Udaletxera jo dezaten, eta onuragarria den proiektu hau beste auzoetara eramateko inizatiba hartu beharko lukeela.

Presente dugu haurguneez auzo berrietan aurrera egingo badute, hori gurasoen konbentzimendu eta antolakuntzaren eskutik soilik izango dela. Ordea, haurreskolen, kulturetxeen, eta auzo desberdinetako eskolen bidez proiektua aurkeztu eta antolaketarako erraztasunak emateak bidea arindu diezaieke haurguneez esperientzia ezagutzen ez duten edota interesatuta egon daitezkeen gurasoei.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari haurguneez zabalpenean inizatiba har dezala.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari haurguneez inguruan informazioa zabaltzeko, haurreskola, eskola, kulturetxe eta bestelako bideetatik.

Donostian, 2024ko urriaren 18an

Izar Hernando Ibero  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia